

Ekodiseinatuz 2025 Programaren oinarriak

Basque Circular Hub lankidetza publiko-pribatuko ekimen bat da, Eusko Jaurlaritza, Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Euskadiko Lanbide Heziketa Aplikatuaren Zentroa -Tknika eta Novia Salcedo Fundazioa erakundeen artean, Ihobe, SA sozietate publikoak kudeatuta.

Ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuak eskaintzea du helburu, besteak beste, talentu gaztea sustatzea eta prestatzea ingurumen jasangarritasunaren esparruan, eta ingurumen aldagaia Euskadiko ehun sozioekonomikoan lehiakortasun ardatz gisa txertatzea bultzatzea.

Horretarako, euskal enpresen eta unibertsitateko ikasleen arteko lankidetza sustatzen da. Enpresek graduako azken urtea egiten ari diren gazteak hartzen dituzte, jasangarritasuna enpresetan integratzera bideratutako praktikak egin ditzaten eta haiek lan ingurune batean sartzea errazteko.

1) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Ekodisenatuz programa graduako edo masterreko azken urtean dauden ikasleei zuzenduta dago eta ekonomia zirkularreko proiektuen garapena bultzatzera bideratuta dago.

Programaren barruan, ekonomia zirkularrari buruzko formazio teorikoa emango da, eta euskal enpresetan bizi zikloaren ikuspegia integratzera bideratutako praktikak egingo dira.

Programak 5 hilabeteko iraupena du, eta, epe horretan, praktiketan dagoenak prestakuntza jasoko du eta bere jarduerak modu presentzialean garatuko ditu enpresaren instalazioetan, unibertsitatea-enpresa hezkuntzan lankidetzan aritzeko hitzarmen baten esparruan.

1.1. Programaren xedea

Programak, beraz, helburu bikoitza du: gazteen enplegarritasuna hobetzea eta merkatuaren eskariari trebatutako pertsonekin erantzutea.

Programaren barruan, ekonomia zirkularren alorreko doako formazio etapa bat egongo da, eta horrekin batera enpresan ordaindutako praktikak egiteko aukera emango da, arlo horretan adituak diren tutoreen laguntzarekin.

1.2. Norentzat:

Programa honako hauei zuenduta dago:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren **eta gradu teknikoko azken urteko ikasketak** egiten ari diren gazteak.
- Egoitza soziala edo gutxienez jarduera zentro bat Euskal Autonomia **Erkidegoan duten enpresak;**

1.3. Gaiak

Praktikak ingurumen **ebaluazioko** proiektuak garatzearekin lotuta egongo dira, bizi zikloaren ikuspegia eta zirkulartasuna bultzatzen duen ekodiseinua kontuan hartuta, bai eta proiektu hauek garatzearekin ere:

- Antolaketa ikuspegi batetik:
 - Erakundearen ingurumen metrikak kalkulatzeko eta aztertzea, hala nola ingurumen aztarna, 1, 2 eta 3 irismeneko karbono aztarna edo zirkulartasun adierazleak.
 - Ingurumen informazioa sistematizatzea eta reporting egitea
 - Erakundearen eta negozio ereduaren zirkulartasuna neurtzea, 590000 serieko ISO arauen arabera
 - Balio katearen trakzioa eta erosketa pribatu berdea
 - Ingurumen jarduna monitorizatzea eta dibulgatzea
 - Negozio ereduaren zerbitzazioa, “Produktutik negozio eredura: zerbitzazioa ekonomia zirkular batean” izeneko eskuliburua aplikatuz
- Produktuaren/zerbitzuaren ikuspegi batetik
 - Ingurumen metrikak kalkulatzeko eta aztertzea bizitza zikloaren ikuspegiarekin (BZA eta ingurumen aztarna)
 - Produktuaren edo ingurumen etiketen ingurumen adierazpenak garatzeko laguntza
 - Produktu eta zerbitzuen ekodiseinu zirkularra
 - Produktuetako zirkulartasun indizeen ebaluazioa (iraunkortasuna, konpongarritasuna, birziklagarritasuna), UNE-EN 45552:2021, 45554:2020 eta 45555:2020 arau familiaren arabera

2) **PROGRAMAREN BALDINTZAK**

2.1. Gaikuntza eta laguntza

- Praktikak egin aurretik, parte hartzen duten ikasleek **autoprestakuntzako 50 orduko ikastaroa** egin beharko dute ekonomia zirkularrarekin lotutako alderdi tekniko eta metodologikoei buruz.

- Formakuntza online izango da, autoprestakuntza formatuan. Iraupenari dagokionez, **2025eko azaroaren 24aren eta 2026ko urtarrilaren 30era bitarte** burutu ahal izango da. Ikasleek, gainera, lhobek prestatutako adituen tutoretza izango dute astero. Saio horiek funtsezko oinarriak azaltzera, ariketa praktikoak lantzera eta zalantzak argitzera bideratuta egongo dira.
- Programak **30 plaza** eskaintzen ditu **online formaziorako**.
- Plazak matrikulazio hurrenkeraren arabera esleituko dira, dauden plaza kopurua errespetatuz eta parte hartzeko baldintzak betez (bizilekua eta egiten ari diren ikasketak).
- Praktiketako pertsonak, gainera, **lhobek prestatutako adituen tutoretza** jasoko dute praktiketako bost hilabeteetan.
- Praktiken iraupena, asteko dedikazio orduei dagokienez, jatorriko unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenean ezarriko da.

2.2. Praktiken iraupena eta datak

- Praktikak **dauden enpresa interesdunen** eta praktiketako gazteak hartzeko proiektuak dituzten enpresen kopuruaren **menpe egongo dira**.
- Praktikak **2026ko urtarrila edo otsailetik** aurrera hasiko dira, beti ere, formakuntza teorikoa amaitu eta gero. Gutxienez **bost hilabeteko** iraupena izango dute. Horrez gain, **praktikak luzatu ahal izango dira**, elkarren artean hala adostuz gero, Ekodiseinatuz programatik kanpo.

2.3. Zuzkidura ekonomikoa

- Zuzkidura ekonomikoa: Enpresek zenbateko bat esleitu beharko dute hilero praktikak egiten ari denarentzat. Zenbateko hori **550 € eta 1.100 € artekoa izan daiteke, praktiketako pertsonaren asteko dedikazioaren (20-40 ordu bitarte) eta jatorrizko unibertsitatearekin egindako hitzarmenaren arabera**. Xehetasunak posta elektroniko bidez kontsultatu helbide honetan: basquecircularhub@ihobe.eus
- Enpresak Gizarte Segurantzaren alta emateko gastuak ordainduko ditu.

2.4. Lan lekua

- Praktikak enpresaren instalazioetan egingo dira. Gehienez ere, lau egunez egin daiteke telelana, enpresak eta bekaadunak aldez aurretik adostuta.

3) HAUTAKETA ETA PRAKTIKAK ESLEITZEKO PROZESUA

3.1. Hautaketa prozesua

- Programak **15 plaza** eskaintzen ditu guztira **enpresetan praktikak egiteko**.

- Praktiketako programan sartzeko, ezinbestekoa izango da formazio ikastaroa gainditu izana. Ikastaroa gainditzeko, gutxienez **klaseen % 80ra joan izana** eta ikastaroan esleitutako **jarduera praktikoak egin izana** egiaztatu behar da.

3.2. Gaztea-enpresa esleitzeko prozesua

- Basque Circular Hubek kudeatuko du enpresa parte hartzaileei praktikak egin behar dituzten pertsonak esleitzea.
- Ikasleek aukera izango dute praktikak egin nahi dituzten **programako hiru enpresa lehenesteko**. Ondoren, Basque Circular Hubek enpresa bakoitzari bidaliko dizkio aurrez hautatutako gehienez hiru hautagaien curriculum vitaeak, honako hauek oinarri hartuta:
 - Profilak enpresaren premia espezifikotara egokitzea.
 - Hurbiltasun geografikoa eta enpresara iristeko mugikortasun premietara egokitzea
 - Ikasleen lehenetasunak aukeratutako enpresekiko.
- Enpresak hiru egun balioduneko epea izango du praktikak egin behar dituen pertsona aukeratzeko edo hautagaitza bete gabe uzteko. Baztertutako hautagaitza beste enpresa bati eskainiko zaio.
- Ikastaroa egiten duten baina azkenean praktiketako plaza hartzen ez duten pertsonak ikastaroaren ondorengo edizio batean egin ahal izango dituzte praktikak, baldin eta plaza librerik badago.
- Horrela, gazteen eta enpresen hautaketa modu naturalean egingo da, eta bi aldeek ekarpenak egingo dituzte.

4) PROGRAMAN IZENA EMATEA

- Ekodiseinatuz programaren baitan praktikak burutu nahi dituzten gazteek Basque Circular HUBekin harremanetan jar daitezke [formulario honen](#) bidez.
- Izena emateko epea **2025ko azaroaren 15era** arte egongo da zabalik.
- Programak deialdi berriak irekiko ditu 2026an.

5) INFORMAZIO GEHIAGO

Posta elektronikoa:

basquecircularhub@ihobe.eus

Telefona: 647 940 819